

TALDE ELKARRERAGILEETAN PARTE HARTZEN DUTENENTZAT GIDA

Oinarrizko ideiak: inor ez dadila atzean gelditu; kide bakoitzaren arrakasta, guztion arrakasta da.

* BERDINEN ARTEKO LAGUNTZA BULTZATZEKO

1.- JARDUERA ULERTZEKO ESTRATEGIAK

- *Elkar lagunduko gara*
- *Ea denon artean pistak ematen dizkiogun*
- *Laguntzailea: Ez dut ongi ulertzen ariketak eskatzen duena; ez dut ulertzen (taldeari azalpena ematen ari den kideari zuzenduz).*
- *Ondokoari azaldu ea denok ongi ulertu dugun*
- *Ariketa egiten hasi aurretik dakiguna eta ez dakiguna argitu eta definitu. Horretarako, batak besteari ariketa azaltzea*

2.- JARDUERA BUKATZEKO ESTRATEGIAK

- *Ea aldaketa egin aurretik amaitzen dugun*
- *Oso ongi; oso ongi goaz; oso ongi ari gara egiten...*
- *Konfidantza eta ilusioa transmititzen duten adierazpen eta keinuak: irrifarre egin, buruarekin oniritzia eman*

3.- PARTE HARTZEN EZ DUENARI LAGUNTZEKO ESTRATEGIAK

a) Ekarpenak egiteko gai denean

- *Lagunduko al diguzu?*
- *Nola egingo zenuke zuk?*
- *Berdin erantzungo zenuke zuk?*
- *Erantzun aurretik ongi pentsatu (era honetan, denek pentsatzeko denbora izango dute).*
- *Jarduerak txandaka irakurri.*

b) Bakarrik ez badakite antolatzen, lagundu

- *Parte hartze handiegia badu batek: asko gara eta guztiok dugu zerbait esateko*
- *Azkarregi badoa lagun bat, helduak zera esango du: Ez naiz iristen, mantsoago mesedez.*

c) Inor atzean geratzen bada, erritmoa mantsotu

- *Azkarregi goaz ezta?*
- *Begiratu berriro erantzuna*
- *Testua ongi irakurri dugu?*
- *Ikus dezagun berriro zer eskatzen duen ariketak*
- *Batek gehiegi hitz egiten badu, besteei ekarpenak eskatu.*

4.- HAUSNARKETA ETA ARRAZONAMENDUA SUSTATU

- Ea ezer ikasi duten galdetu
- *Zergatik egin duzu horrela?*
- *Nola azalduko zenuke zure taldean ez daudenek ulertzeko eta ikasteko?*
- Argudioak emateko ahalegina indartu: *Oso ongi ulertu da, ados al zaudete? Zergatik ? Zergatik ez?*
- Landutakoa beste testuinguru berri batean irudikatu.
- Ikasleei ulertzen duten galdetu.
- Argudioak ematen saiatzeko helduak ez ulertuarena egingo du.

5.- IKASLEEN INTERESAK BALORATU:

- Ikasleen ekarpenen erantzuna momentuan eman edo zehaztasun handiagoa eskatu: *Bai ekarpen ona! Ados, nola egingo genuke?*

6.- TALDEKIDE ETA EKARPEN GUZTIAK INDARTU

- *Zelako maila!*
- *Zeinen ongi ari garen!*
- *Aurrera, oso ongi goaz!*